

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

573/19 prozedura laburtuan epea jartzea

Antzinasunaren zenbaketa aldatu eta zenbaki profesionala esleitzeko eskabidea ezetsi zitzaioneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2019ko irailaren 10eko ebazpenaren kontra 44125819C nortasun-agiriaren titularrak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —573/19 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 9an

Udal legelaria

CRISTINA NÚÑEZ SASETA